

GENERO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK

HAUR HEZKUNTZAN:

genero bereizketaren erreprodukzioa eraldatzen

hasteko ikerketa-diagnostikoa eta esku-hartzea

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Machado de Souza, Agustina

ZUZENDARIA: Odriozola Irizar, Onintza

GRADUA: Haur Hezkuntza

MINORRA: Haur Hezkuntzako Tailerrak

2020. URTEA

AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. LANAREN HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	4
2. ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA	5
2.1. SEXU-GENERO SISTEMA	5
2.1.1. GENERO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK	5
2.1.2. IDEOLOGIA PATRIARKALAREN EZAUGARRIAK	7
2.2. SEXISMOAREN TRANSMISORAKO ERAGILEAK: ESKOLA	9
2.2.1. HEZKIDETZA, PAREKIDETASUNERAKO TRESNA	11
3. METODOLOGIA ETA LANAREN GARAPENA	13
3.1. OINARRI METODOLOGIKOA	13
3.2. PARTAIDEAK	13
3.3. ERABILITAKO TEKNIKAK ETA TRESNAK	14
3.4. PROZEDURA	15
4. DIAGNOSTIKOA ETA ESKU-HARTZEA	16
4.1. DIAGNOSTIKOA	16
4.1.1. GENERO ROL ETA ESTEREOTIPOAK: HAURREN AURREIRITZIAK	16
4.1.2. HEZKIDETZAREN EGOERA	16
4.2. PLANIFIKAZIO FASEA	20
4.3. ESKU-HARTZE FASEA	27
4.4. EBALUAZIO FASEA	28
5. ONDORIOAK	33
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	35
ERANSKINAK	38
1. eranskina: irakasleen jarrerak hezkidetza ikupegitik aztertzeke inkesta	38
2. eranskina: elkarriketa gidoia	39
3. eranskina: lehen esku-hartzean eztabaida sustatzeko galderak	39
4. eranskina: hirugarren esku-hartzerako argazkiak	40
5. eranskina: laugarren esku-hartzerako argazkiak	41
6. eranskina: bosgarren esku-hartzean erabilitako irudiak	42
7. eranskina: bosgarren esku-hartzean hurrek sortutako marrazkiak	42

GENERO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK HAUR HEZKUNTZAN: genero bereizketaren erreprodukzioa eraldatzen hasteko ikerketa-diagnostikoa eta esku-hartzea

Agustina Machado de Souza

UPV/EHU

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan genero rolen eta estereotipoen erreprodukzioa eraldatzen hasteko esku-hartze bat planifikatu, gauzatu eta ebaluatzen da. Hau Donostiako ikastola publiko batean egindako praktikaldian burutu da, Haur Hezkuntzako 4 urteko haurren gelan hain zuzen ere. Horretarako, lehenengo, eskolako errealitatearen diagnostiko bat egin da; behaketa, inkesta eta bi elkarrizketen bidez irakasleek hezkidetzarekiko duten ikuspegia edo jarrera, eta praktika hezkidetzailleak garatzeko erraztasunak ikertu dira. Genero rol eta estereotipoen erreprodukzioa eraldatzeko jardueretan eta proiektuetan dagoen hutsunea ikusi ondoren, gai hau lantzeko esku-hartzea planifikatu da hainbat helburu zehatz kontuan izanda. Burutu ondoren, hura ebaluatzeko orduan, emaitzak helburu zehatzen arabera antolatu dira.

Genero estereotipoak, genero rolak, Haur Hezkuntza, esku-hartzea, hezkidetzak

En este Trabajo de Fin de Grado se planifica, implementa y evalúa una intervención para empezar a modificar la reproducción de roles y estereotipos de género. Esta intervención tuvo lugar durante las prácticas en una escuela pública, en la clase de 4 años. Para ello, primero, se investigó a través de la observación, la encuesta y dos entrevistas las facilidades de los docentes para desarrollar perspectivas y prácticas coeducativas. Al ver que el vacío en las actividades o proyectos para modificar la reproducción de roles y estereotipos de género, se ha planificado la intervención para trabajar este tema con una serie de objetivos específicos en mente. Después de llevarla a cabo, los resultados se han organizado de acuerdo con objetivos específicos.

Estereotipos de género, roles de género, Educación Infantil, intervención, coeducación

In this Final Degree Project, an intervention is planned, implemented and evaluated to start to modify the reproduction of gender roles and stereotypes. This intervention took place during an internship at a public school, in the 4 year-old class. For that purpose, first, the facilities of teachers to develop co-educational perspectives and practices was investigated through observation, a survey and two interviews. Taking into account the void in activities or projects to modify the reproduction of gender roles and stereotypes, the intervention has been planned to work on this topic with a series of specific objectives in mind. After accomplishing it, the results have been organized according to specific objectives.

Gender stereotypes, gender roles, Child Education, intervention, coeducation

SARRERA

Eskola gizarte erakunde garrantzitsua da eta, jendarte eredia birsortzeko baino, eraldaketarako bitartekoa izan behar duela sinesten dugu, pertsonen garapenerako bitarteko askatzailea, alegia. Honela, pertsona aske eta integralak hezi, eta sexuen arteko parekidetasunaren alde egin beharko luke. Hala ere, gizarte sexista batean bizi garen heinean, eskolak ere (kontzienteki edo inkontzienteki) balio sexistak transmititzen dituela garbi dago. Eskolak transmititzen duen sexismoa apurtzeko asmoz, batez ere hain ikusgarriak ez diren sexismo forma horiek, hezkidetzak ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Haur Hezkuntzako Gradu 4. mailako praktikak igarotzeko bere Hezkuntza Proiektuan hezkidetzak aintzat hartzen duen ikastetxe bat aukeratzeko helburua jarri genion geure buruari. Honela, Donostiako ikastola publiko baten Hezkuntza Proiektua aukeraketan gakoia izan zen, bertan hezkidetzak eskolan duen garrantzia azpimarratzen baitzen. Izan ere, bertan hezkidetzak eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduketak planari atal oso bat eskaintzen zaio eta gaiari garrantzia ematen diotela antzematen da. Gainera, Elkarbizitza-Hezkidetzak Plana eskolako egunerokotasunean txertatuta dagoela eta plan hau garatzeko Elkarbizitzaren Behatokiaz baliatzen direla azaltzen da.

Hau honela izanda, lehenik, behaketaren, inkesta baten eta elkarrizketen bitartez, eskolako irakasleek hezkidetzarekiko duten ikuspegia edo jarrera eta praktika hezkidetzailleak garatzeko dituzten erraztasunak ikertu dira. Ondoren, genero rol eta estereotipoen erreproduktzioa eraldatzeko jardueretan eta proiektuetan dagoen gabezia ikusiaz, Haur Hezkuntzako 4 urteko haurrekin genero rolak eta estereotipoak landu dira, ikusteko ea esku hartze hezkidetzaille baten bidez haurrek genero binarismoaren gainean dituzten aurreiritziak eraldatzen has gaitezkeen.

Bukatzeko, lan hau hainbat ataletan antolatu da; lehenik, esparru teorikoa eta kontzeptuala azaltzen da; ondoren, metodologiak eta lanaren garapenak jarraitzen du; jarraitzeko, ikerketa-diagnostikoaren eta esku-hartzearen azalpena ematen da; eta, azkenik, ondorioak adierazten dira, lanaren inguruko hausnarketa eginez.

1. LANAREN HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Gradu Amaierako Lan honi helburu bikoitza jarri diogu: alde batetik, praktikak egin ditugun ikastolan hezkidetzaren egoera zein den aztertzea eta, beste alde batetik, Haur Hezkuntzako 4 urteko haurren gelan genero rol eta estereotipoen erreprodukzioa eraldatzen hasteko esku-hartze bat planifikatzea, inplementatzea eta ebaluatzea. Izan ere, ikerketaren lehendabiziko zatia egin ondoren, hots, hezkidetzaren egoerari buruzko diagnostikoa, hutsune batez ohartu gara: eskolan ez direla jarduerak edo proiektuak egiten genero estereotipoekin eta rolek amaitzeko. Gure ustez, haurrak beren gaitasun errealak garatuz hezi behar ditugu, jaiotako generoaren arabera izan beharrean. Hori dela eta, beharrezkoa da enpatia, afektibitatea, sentiberatasuna, lankidetzeta eta sormena garatzea, baita berdintasunean hezteko ere, bai eskolan bai etxean. Bizitzako lehen urteetan genero rola eta estereotipoak hausten ez badira, energia eta denbora asko eskaini beharko dugu naturalki ikasi den guztia dekonstruitzeko.

Helburu orokorreari lotuta, honako helburu espezifiko hauek zehazten dira: 1) eskolako irakasleek hezkidetzarekiko dituzten jarrerak eta praktika hezkidetzailleak garatzeko eskura dituzten erraztasunak ikertzea, hutsuneak identifikatu ahal izateko; 2) 4 urteko haurrak genero bereizketaren kontzientzia hartzen hastea; 3) etxeko lanen genero banaketaz ohartzen hastea; genero estereotipoak zalantzan jartzen hastea; eta, azkenik, 4) lanbideetako sexismoaz konturatzen hastea.

Aipatutako helburuetan oinarrituta, eta esparru teoriko eta kontzeptuarekin biltzen joan garen informazioarekin lotuta, honako hipotesi hauek planteatu dira: ikerketari dagokionez, hezkuntzaren esparruan hezkidetzaren kontzientzia gero eta gehiago zabaltzen ari den arren, praktikan esku hartze hezkidetzaillea oraindik ez dagoela sistematizaturik eta, beraz, irakasle bakoitzaren esku geratzen dela hezkidetzaren lanketa. Bestalde, esku-hartzeari dagokionez, 4 urteko haurrek urte gutxi izan arren, genero rol eta estereotipo batzuk jada barneratuta izango dituztela espero da eta, behin esku-hartze hezkidetzaillea burutu ondoren, generoarekin lotutako hainbat alderdiz konturatzen has daitezkeela.

Honekin, beraz, ez da espero genero rol eta estereotipoen erreprodukzioarekin guztiz bukatzea, baina bai ikasleen buruetan hazi batzuk uztea eta gaiarekiko kritikotasuna garatzen hastea. Izan ere, esku-hartze txiki bat denez, eta ez unitate didaktiko edo proiektu oso bat, aurrerapausoak oso txikiak izango lirateke. Helburuak eta hipotesia azaldu ondoren, hainbat erreferentzia bibliografiko izanik, informazioa iturri ezberdinetatik bilatu eta hurrengo atalean esparru teorikoa antolatuta eta osatuko dugu.

2. ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA

2.1. SEXU-GENERO SISTEMA

Gizarte askoren berezko pluraltasunaren barruan, sexua eta generoa norbanakoen identitateak eraikitzeko prozesuan kontuan hartu behar diren elementuak dira. Gizarteak sexualitate biologikoa giza jardueraren produktu bihurtzen duenean, bide edo xedapen horien multzoari sexu-genero sistema deritzogu (Rubin, 1986). Beraz, sistema honek sexua (biologikoa) eta generoa (kulturala) derrigor lotzen dituela esan dezakegu. Hala ere, bi kontzeptu hauek ondo bereiztea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Reizabalek (2015) dioen bezala, alde batetik, sexua izakiek duten ezaugarri biologikoa da; emakume eta gizonen sexu biologikoak bereizten dira eta norbanakoa sailkatzeko, izendatzeko eta kokatzeko baliagarria da. Beste alde batetik, generoa eraikitze sozial bat da, hots, kulturak edo jendarteak sexu bakoitzari ezaugarri psikosozial jakin batzuk egokitu dizkio (Reizabal, 2015). Generoa sinbolizazio jakin batzuek osatzen dute, eta sexu bakoitzaren sozializazioa desberdina da (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, 2018).

Hortaz, testuinguru jakin bakoitzean emakumeei eta gizonezkoiei arau, jokabide, itxaropen, ezaugarri, rol, balore eta jarrera jakin batzuk egokitzen zaizkie. Elementu horiei guztiei genero agindu esaten zaie, bazterketa edo/eta jazarpena ekiditeko jarraitu behar diren arau inplizituak. Izan ere, haurrak jaiotzen direnetik hasten dira genero identitatea garatzen eta beren jendartean emakume edo gizon izateagatik espero diren ezaugarriak, jokabide-ereduak, jarduerak, balioak, zereginak eta bestelako genero aginduak ikasten. Prozesu horri, genero sozializazioa esaten zaio eta sozializazio-eragileen bitartez (familia, irakasleak, kideak, komunikabideak, eta abar) gertatzen da (Reizabal, 2015).

2.1.1. GENERO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK

Reizabalek (2015) azaltzen duen moduan, genero aginduen barruan genero rolak ditugu eta hauek genero sozializazioaren bitartez bereganatutako arau, funtzio, jokabide, balio, jarrera, paper eta itxaropen multzoa dira, talde edo gizarte sistema jakin batean gizonezkoekin edo emakumeekin lotuta daudenak. Bestalde, genero estereotipoak sexu bakoitzari egokitzen zaizkion nortasun-ezaugarriek, rolek, motibazioek, ezaugarri fisikoek, gaitasun kognitiboek, jokabideek eta bestek osatzen dituzte. Beraz, genero rolak genero estereotipoen zati dira eta bigarren hauek elementu gehiago barne hartzen dituzte.

1. taula: gizon eta emakumeei egokitutako estereotipoen zerrenda

	Nortasun- Ezaugarriak	Rolak	Ezaugarri fisikoak	Gaitasun kognitiboak
Estereotipo femeninoa	Adeitsua.	Arropaz arduratzea.	Ahots suabea.	Adierazpena.
	Ahula.		Barregarria.	Artistikotasuna.
	Beldurtia.	Emozio- sostenguaren	Dotorezia.	Ezagutza urrikoa.
	Beroa.	ituri.	Edertasuna.	Hautemate- gaitasuna.
	Besteekiko dedikazioa.	Erosketa egitea.	Ikusgarria.	Hitzezko gaitasunak.
	Besteen sentimenduen ezagueradun.	Etxeaz arduratzea.	Sexya.	Intuizioa.
	Buru-kontrolik gabekoa.	Modaz interesatzea.	Txikia.	Irrazionaltasuna.
	Emozionalki ezegonkorra.	Sukaldaria.		Irudimena.
	Irrazionala.	Txutxu- mutxuzalea.		Sortzailetasuna.
	Koherentziarik gabekoa.	Umeez/zaharrez arduratzea.		Ukimena.
	Lan-ambizio gutxikoa.			
	Subjektiboa.			
	Hunkibera.			
	Kaskarina.			
	Pasiboa.			
	Menpekoa.			
	Ondo hezia.			
	Otzana.			
	Ulerkorra.			
	Xamura.			
Estereotipo maskulinoa	Aktiboa.	Brikolajea.	Atletikoa.	Analitikoa.
	Arrazionala.	Diru- homitzailea.	Beltzarana.	Arazoak bideratzeko gaitasuna.
	Ausarta.	Familia-burua.	Bizkar zabala.	Arazoibide matematikoa.
	Buru-segurtasuna.	Kirolzalea.	Garaia.	Gaitasun kuantitatiboak.
	Deliberatua.	Kontrol ekonomikoa.	Gogorra.	Pentsaera abstraktua.
	Dinamikoa.	Liderra.	Gorputz handikoa.	Zehatza
	Eraginkorra.	Sexu-iniziatiba.	Indar eta kemen fisikoa.	Zenbaki- gaitasunak.
	Independentea.		Muskularra.	Zientziatarako gaitasuna.
	Kontrolatua.			
	Emozionalki egonkorra.			
	Lehiakorra.			
	Nagusitasunerako joeraduna.			
	Ni sendoa.			
	Oldarkorra.			
	Objektiboa.			
	Psikologikoki indartsua.			
	Saiatua.			
Tolesgabea.				

Iturria: Reizabal, 2015 (19.or)

Hainbat ikerlariaren lanen arabera, gutxi gorabehera haurrak 2 urte eta erdi dituztenean, estereotipo horiek ezagutzen hasten dira. Izan ere, gizonaen eta emakumezkoen irudiak zenbait jarduerarekin, jantzirekin, tresnarekin eta bestelako osagarriekin erlazionatzen dituzte. Honela, 3 urtetik 7 urtera arteko haurrek genero estereotipoak halaberrez bete beharreko arauak direla uste dute, batez ere mutilek. Gainera, 3 urtetik aurrera jostailu bakoitza genero estereotipoen arabera sailkatzeko gai dira eta 4. urterako zenbait kolore sexu batekin edo

bestearekin erlazionatzen dituzte; arrosa eta lila neskekin, marroia eta urdina mutilekin. 5. urterako haurrek ezaugarri psikologiko jakin batzuk sexu batekin edo bestearekin erlazionatzen dituzte: oldarkortasuna edo mendekotasuna gizonezkoekin, eta adeitasuna edo emozionaltasuna emakumezkoekin, hain zuzen ere (in Reizabal, 2015).

Sozializazio prozesuak genero estereotipoak naturalizatzen ditu, ikusezin bihurtu arte. Honela, pertsonen jarreretan, zaletasunetan, sentimenduetan, harremantzeko moduan eta etorkizunerako itxaropenetan homogeneousotasuna lortzen da (Emakunde, 2008). Izan ere, estereotipoak naturalizatzea horiek onartzea da eta, honela, gure ekintzak, erabakiak, kritikak edo lehentasunak haien menpe geratzen dira. Beraz, jarrera kontserbadoreak saihesteko, pentsamendu kritikoa ondo garatzea eta genero estereotipoak une oro zalantzan jartzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu.

Honekin lotuta, aipatzekoa da estereotipo hauek eredu finko eta orokorretara egokitzen direla eta kalitate indibidualetan ez dutela arretarik jartzen. Estereotipo guztiek, itxuraz errugabeak direnek ere, eragin handia dute pertsonengan. Izan ere, hauek irudi mental estandarizatuak eta orokortuak besterik ez dira, eta errealitatearen desitxuratzea eragiten duen fenomeno negatibotzat har daitezke (Michel, 1987).

2.1.2. IDEOLOGIA PATRIARKALAREN EZAUGARRIAK

Pertsona bakoitzari bere sexuaren arabera abantailak esleitzeko edo diskriminatzeko joerei dagokie sexismoa eta, ondorioz, genero diskriminazioaren sinonimotzat hartu ohi da. Hala, sexua oinarri hartuta, gizon-emakumeekiko tratuan, eskaintzen zaizkien aukeretan, dituzten baldintzetan, aplikatzen zaizkien arau moraletan, sarietan, zigorretan, beharretan eta beste hainbat alorretan gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak eta hierarkizazioa sortzen dira sexismoaren ondorioz (Blanco, 2001).

Glick eta Fiske-ren Sexismo Anbibalentearen Teoriaren arabera, bi motatako sexismoak daude: etsaitasunezkoa eta onginahikoa. Etsaitasunezko sexismoa ideologia sexista klasikoa izango litzateke, paternalismo menderatzailea, genero bereizketa eta etsaitasun heterosexuala barne hartzen dituena. Onginahiko sexismoa, aldiz, emakumeen genero rol tradizionalak betetzen dituzten emakumeekiko ustezko jarrera positiboa da eta gizonaren boterea, genero rolak, eta emakumea sexu-objektu izatea justifikatzeko balio du. Bigarren honen barruan paternalismo babeslea, emakumeen idealizazioa eta sexu-harremanen nahia izango genituzke (Glick eta Fiske, 1996; Rodriguez, Lameiras, Carrera eta Faílde, 2009tik jasoa) .

Reizabalek (2015) matxismoa “sexismoaren isla” bezala definitzen du, gizonezkoa emakumezkoaren nagusi gisa jartzen duena eta, ondorioz, emakumeak gizonen mendeko. Matxismoaren ustezko nagusitasun horretan sistema jakin bat oinarritzen da, patriarkatua izenekoa, hau gizonen nagusitasunean oinarritzen den antolaketa soziala da. Honen bitartez, politika, ekonomia edo erlijioa bezalako arloetan gizonezkoek botere-postu garrantzitsu gehienak dituzte (Reizabal, 2015). Patriarkatua “kristalezko sabaia” izeneko kontzeptuaren bitartez ematen da, metafora honekin emakumeen garapen profesionala oztopatzen eta mugatzen duten diskriminazio-mekanismoen modalitateak errepresentatzen dira (Barberá Heredia, Sarrió, Ramos eta Candela, 2002).

Bestalde, gizonezkoen nagusitasun horrek androzentrismoa dakar. Emakumearen Euskal Erakundeak (Emakunde, 2008) azaltzen duenez, androzentrismo kontzeptuak kontsideratzen du gizonek egindakoa gizadiak egindakoa dela, edo alderantziz, gizadiak egin duena gizonek eginikoa dela. Honetan gizonen ikuspegia unibertsaltzat hartzen da eta, beraz, emakumezkoak eta haien ikuspegia ezabatu egiten dira, haien ekarpenak aintzat hartu gabe. Honekin lotuta, Simone de Beauvoirrek (1949) bere *Segundo Sexo* liburuan, alteritate kontzeptua aurkezten digu. Gizartean gizona funtsezkoa da, absolutua, arauak eta munduaren definizioak sortzen dituena. Emakumea, aldiz, “bestea” bezala definitzen du eta haren bitartez gizona errealizatzen da.

Azkenik, maskulinitasunaren ideologia patriarkala iraunarazteko oinarrizko mekanismotako bat homofobia dugu. Gizon heterosexualaren ereduaren definizioan femeninotzat jotzen diren jarrerak dituzten gizonak ukatzen dira. Honela, gizon homosexualak ez dira maskulinitzat hartzen eta bazterketa jasaten dute (Emakunde, 2008). Ondorioz, sistema patriarkalaren barruan dagoen gaur egungo gizarte sexista honetan, maskulinitzat hartzen dena baloratzen da: lehiakortasuna, oldarkortasuna, menderatzea, indar fisikoa eta boterea; eta femeninotzat hartzen dena gutxiesten da: samurtasuna, adimen globala, afektibitatea, lankidetzeta, intuizioa. Honek guztiak misoginia izeneko kontzeptua dakar, emakumezkoen aurkako ezinikusia edo gorrotoa dena (Reizabal, 2015).

Honen ondorioz, gizonezkoen gorroto eta nagusitasun horrek indarkeria matxista sortzen du. Nazio Batuen Erakundearen (Reizabal 2015tik jaso) indarkeria matxistaren definizioa oinarri harturik, indarkeria matxista (genero indarkeria edo emakumeen aurkako indarkeria) generoan oinarritutako indarkeriazko ekintzen multzoa da, ondorio fisiko, sexual, psikologiko, ekonomiko, sozial eta espiritual edo ideologiko posibleak dituena. Gainera, eremu

publikoan nahiz pribatuan, ekintza horien bitartez mehatxatzea, bortxatzea eta askatasuna kentzea ere bada.

Indarkeria matxista soilik bikote edo bikote ohien harremanen eremuan gizonak eragindako tratu txar fisiko edo psikologikoekin erlazionatzen den arren, Reizabalen arabera (2015), ikusmolde hori murrizta da. Alde batetik, indarkeria matxista bikote edo bikote ohien arteko harremanez at gerta daitekeelako; eta bestetik, gizartean agintzen duen sistema patriarkalak ere indarkeria matxista eragiten duelako.

Honela, eredu maskulinoaren definizioan barne hartzen da femeninoa den guztia gorrotatzea (misoginia); indarkeria arazoan konponbide modu gisa erabiltzea (indarra eta oldarkortasuna); eta eredu heterosexualarekin bat ez datorren gizonezkoei gorrotatzea (homofobia) (Blanco, 2001). Honen aurrean, gizarte sexistaren egoera aldatzeko feminismoa sortu zen, gizonek eta emakumeek eskubide eta aukera berdinak izan ditzaten lortzeko mugimendu sozial, filosofiko eta politikoa dena (Reizabal, 2015). Urte askotan zehar emandako feministen borrokari esker, gure jendartean genero berdintasunerantz egindako urratsak gertatu direla esan dezakegu.

2.2. SEXISMOAREN TRANSMISORAKO ERAGILEAK: ESKOLA

Gaur egun, eskoletan, itxuraz, sexuen arteko aukera-berdintasuna ematen da. Izan ere, ikasgeletan neskak eta mutilak elkarrekin egoten dira, eta irakasle, liburu eta jarduera berberak izaten dituztenez, guztiek tratu berdina jasotzen dutela uste da (Ugarte, 2009). Hala ere, Blancok koordinatutako (2001) liburuan azaltzen den bezala, eskolak neutraltasunaren eredua jarraitzen du, ustezko inklusioa barne hartzen duena, baina neutroa deitzen dena androzentrikoa da, maskulinoa, eta gizonezkoentzat betidanik balio izan duenak emakumeentzat ere berdin balio duela uste da.

Irakasgaiek Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan duten garrantzia aztertzen badugu, matematika, fisika eta teknologia dira arrazionaltasun printzipioak, etorkizuneko lana eta mundu produktiboaren garrantzia markatzen dutenak. Irakasgai horiek dira, era berean, hezkuntzako adierazle gisa balio dutenak, ikasleak lan akademikorako adimentsuak, egokiak edo nuluak diren ebaluatzeko. Arrazionaltasuna eta unibertsaltasuna (pentsamendu binarioa barne) dira maskulinitasuna irudikatzen dutenak (Blanco, 2001). Beraz, honek ahalbidetzen du funtsezko kontzeptuen ikuspegi dikotomikoa kontrajartzea: onak edo txarrak, interesgarriak edo interesik gabekoak, garrantzitsuak edo garrantzitsuak ez direnak, maskulinoak edo femeninoak.

Eskolan maskulinoak kontsideratzen diren kirolek indar fisikoa eta gorputzaren boterea adierazten dute, eta matematika eta fisika dira arrazoimenaren eta gaitasun kognitiboaren irudikapenak. Ondorioz, ikasle bikainak dira matematiketan eta kirolean trebeak direnak; beraz, eskolak gizonezkoa baloratzen du, bai kirolean bai zientzietan. Errealitatearen bertsio estereotipatu horiek haurren ikusmoldeetan, jarreretan eta itxaropenetan eragina dute, bai eskolan, bai eskolatik kanpo. Eskolako gertakari hauek aztertzen baditugu uler ditzakegu mutil gehien zientziarako joerak, ikasgelan eta patioan dituzten nagusitasun eta lehiakortasun jarrerak eta zenbateraino baloratzen duten kirola eta indar fisikoa. Honekin batera, baita arretarako, enpatiarako, partekatzerako eta maitasunaren balioekiko duten interesik eza ere (Blanco, 2001).

Blancok (2001) ikastetxeetan erreproduzitzen diren hainbat joera nabarmentzen ditu. Adibidez, irakasleek mutilei, bai ikasgelan, bai patioan, protagonismo handiagoa ematea, ikasle guztiei maskulinoan hitz egitea, neskei baino denbora eta arreta gehiago eskaintzea, edo mutilen iruzkinak neskenak baino interesgarriagoak iruditzea. Gainera, nahiz eta, oro har, neskek baino lan gutxiago egiten duten eta zakarragoak izan, mutilek etorkizunean aurrera egiteko gai izango direla uste ohi dute. Halaber, erabiltzen dituzten irakurketa liburuak gizonezkoek idatzi ohi dituzte eta jorratzen dituzten gaiak gizonezkoen gertakariak, esperimentuak eta biografiak izaten dira.

Bestalde, ikasleen ebaluazioari dagokionez, oro har, mutilek normalean emaitza hobekak lortzen dituzte proba txikiak badira eta neskek, aldiz, gaiak garatu behar badituzte edo ezagutzen arteko konexioak egin behar badituzte. Gainera, helduek haurrekiko dituzten itxaropenak ez dira berdinak izaten mutilen eta nesken kasuetan eta honek haiekiko tratuan eta ebaluazioan eragina du. Hala ere, desberdintasun horiek ez dira normalean kontuan hartzen ebaluatze orduan (Blanco, 2001).

Ondorioz, hezkuntza-sisteman eredu maskulino eta femenino dikotomiko eta hierarkizatuak sustatzen dira eta, horien arabera, mutilen autokontzeptua munduaren egile gisa garatzen da, nagusikeriazko jarrerak sortuz. Emakumeek, ordea, zeregin garrantzitsurik ez dutela, gauza asko inoiz lortuko ez dituztela, jarduera batzuetarako gaitasunik ez dutela eta bestelako usteak garatzen dituzte, autoestimua arazoak garatzeko arriskuarekin (Reizabal, 2015).

Honengatik guztiagatik, Ugartek (2009) esaten duen bezala, pertsona bakoitzaren identitatearen garapena eta hazkunde integrala sustatzeko eta norbanakoa berreskuratzeko genero estereotipoak alde batera uztea ezinbestekoa da. Halaber, identitatearen garapenak

independentzia, autonomia eta norberaren baieztapenaren garapena eskatzen du eta horretan datza hezkidetza.

2.2.1. HEZKIDETZA, PAREKIDETASUNERAKO TRESNA

Berdintasunaren helburu nagusi hori lortzeko, feminismoak hezkuntzarako proposatzen duen tresna hezkidetza da. Reizabalek (2015, 32.or) ondorioztatzen duen moduan: “bi sexuek aukera, tratua, eskubide, betebeharrak, eskaera, itxaropen ardurak, karguak, baliabide denbora, espazio eta beste berdinak izan ditzaten sustatzen duen esku-hartze prozesu hezitzailea da hezkidetza”.

Haur Hezkuntzako curriculum Dekretua aztertuz gero, 20. artikuluan irakasleen prestakuntza eta ebaluazioa azaltzen da eta hezkuntza-eskumenak dituen sailaren prestakuntza-ekintzek izango dituzten ezaugarrien barruan, honako hau agertzen da: “c) Hezkidetza, aniztasun afektibo-sexuala, eta hezkuntza-babes bereziak behar dituzten kolektiboentzako arreta egokia sustatzeko hezkuntza inklusiboa garatzea” (Eusko Jaurlaritza, 2015, 15.or).

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hezkuntza esparruan generoen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak erregulatzen ditu. Honela, 29. artikuluan, hezkidetzako proiektuak egitea aipatzen du, aniztasunean eta emakumeen eta gizonen eskubide eta aukera berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak irakatsiz (Emakunde, 2015).

Hezkidetzak ikastetxe baten ekintza guztiak eusten eta zeharkatzen dituzten zutabe hauek jorratzen ditu (Eusko Jaurlaritza, 2019):

1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean.
2. Hezkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
3. Emakumeen jakituraren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa.
4. Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez.
5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
6. Espazioak ikastetxean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduerak osagarriak.
7. Berdintasunezko hezkuntza afektiboa eta sexuala.
8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku hartzea.

Beraz, hezkidetzaren helburua betetzeko, generoarekin zerikusia duten gaiak lantzeaz gain, pertsonen artean berdintasunezko harreman adiskidetsuak sustatu behar dira, bazterketa,



gehiegizko lehia eta antzekoak ekidinez. Hezkidetzak eskatzen duen sexismoaren aurreko pentsamendu kritiko horri esker, denboraren poderioz egoera aldatzen ari da. Izan ere, genero rolek eta estereotipoek eraikitako baldintzak eraldatu dituzten gizarte aldaketa batzuk gertatu dira azken urteotan.

3. METODOLOGIA ETA LANAREN GARAPENA

3.1. OINARRI METODOLOGIKOA

Gai baten inguruko ikerketa egiteko metodo zientifikoa erabiltzen da, metodoa eta teknika zientifikoak errealitate sozialaren eremuan dauden egoera eta arazo teoriko-praktiko konkretuetan aplikatzeko prozesua dena (Sierra Bravo 1983, Igartua eta Humanes 2004tik jasoa). Ikergaiaren inguruko ebidentziak edo informazioa biltzeko, hainbat teknika, estrategia eta prozedura daude. Gaur egun, teknika ugari erabiltzen dira ebaluazio-prozesuan, kuantitatiboak edo/eta kualitatiboak izan daitezkeenak (Lukas eta Santiago, 2016).

Ikerketa honetan, Haur Hezkuntzako Gradu 4. mailako praktikak egin ditugun ikastolan hezkidetzaren egoera zein den aztertuko dugu, eskolako irakasleek hezkidetzarekiko dituzten jarrerak eta praktika hezkidetzailleak garatzeko dituzten erraztasunak ikertuz. Horretarako, metodologia kualitatiboaren bidez gai honen inguruan ikertzea erabaki da, diseinu etnografikoa erabiliz. Caro, Valverde eta Gonzalezek azaltzen duten bezala (2015), diseinu etnografikoak gizarte-eragileen (irakasle, ikasle, familia, eta abarren) arteko harremanak ulertzeko, deskribatzeko eta interpretatzeko balio du. Diseinu mota honetan, gehien erabiltzen diren teknikak behaketa parte-hartzailea eta sakoneko elkarrizketak dira, ikerketa honetan egingo direnak, alegia.

Ikerlari batzuek ez dituzte teknika kualitatiboak (sakoneko elkarrizketa, eztabaida taldeak, eta abar) erabiltzen, hauekin ezin delako fidagarritasuna neurtu (Juaristi, 2003). Izan ere, ikerketa kualitatiboan lan egiten duen ikerlaria ikerketan parte hartzen duten gizabanakoek hautematen duten moduan errealitatea ezagutzen saiatzen da. Orduan, ikertzailea kontziente izan behar da bere parte-hartzea ez dela neutroa, eta hau aitortuz hura kontrolatzeko gai izango da (Cortés, 1997). Horregatik guztiagatik, alderdi hori kontuan izan dugu ikerketa egin dugun bitartean, beraz, kontziente gara, gure ikerketaren ezaugarriak ikusita, ezin ditugula gure ondorioak beste zentro edo pertsona batzuen jardunera hala nola estrapolatu

3.2. PARTAIDEAK

Ikerketako partaideak ezberdinak izan dira teknika bakoitzean. Lehenik, behaketa praktikak egin ditugun 4 urteko gelan burutu da eta bertan 21 haur daude, 8 mutil eta 13 neska; tutorea 3 urte zituztenetik egon da beraiekin. Ikastola bezala, orokorrean gela oso euskalduna da, nahiz eta salbuespen gutxi batzuk dauden, eta gelan oso parte-hartzaileak izaten dira. Bestalde, elkarrizketak ikastolako bi langileri egin zaizkie: aholkularia bata, eta irakaslea bestea.

Eskolako aholkularia ordezkoa da, urte bete darama eskolan eta Hezkidetzeta Plana berritzen ari da. Irakasleak, berriz, 38 urte daramatza eskola honetan eta aurten 3.mailako Lehen Hezkuntzako gelan dihardu; bere gelan 9 neska eta 14 mutil daude. Azkenik, inkestan 21 irakaslek parte hartu dute, nahiz eta eskolan 33 irakasle diren.

3.3. ERABILITAKO TEKNIKAK ETA TRESNAK

Dagoeneko aipatu dugun bezala, ikerketa honetan, datuak eta informazioa biltzeko erabili diren teknikak behaketa, elkarrizketak eta inkesta izan dira. Lehenik, ikastolan praktikak igaro bitartean, ikastetxean eta gelan bertan behaketak egin dira eta eguneroko batean informazioa idatzi da. Behaketarako fitxa bat prestatu ez den arren, burututako prozedura generoari edo hezkidetzari lotutako ezaugarriak eta gertakariak detektatzea, idaztea eta hauen inguruan hausnartzea izan da.

Inkestari dagokionez, hezkidetzaren ikuspegitik irakasleen jarrerak aztertzeko klaustro osoarentzako galdetegi bat sortu da (Ikus 7.1.eranskina). Inkestaren oinarria Díaz-Pinés Sendraren (2005) Emakume eta Gizonen arteko Berdintasuna Planean agertzen den inkesta eredu batean dago. Bertan 16 esaldi zeuden eta ondoan 1-5 zenbakiak puntuatzeko (1 guztiz desados, 2 desados, 3 zalantzan, 4 ados eta 5 guztiz ados). Puntuak irakasle bakoitzaren balorazioa egin ahal izateko balio dute. 16 esaldi direnez, 80 puntu dira guztira. Esaldi bakoitzaren puntuak batuz lortutako puntuazioak honako tarteetan egongo dira: 48 eta 80 artean, jarrera baikorra eta lanean jarduteko prest; 16 eta 48 artean, jarrera ertaina eta lan taldean eginez gero kontzientziaziorako bidean; eta 16 baino gutxiago, jarrera negatiboa eta zentroan gaiaren inguruan lan egiteko beharra kontuan ez hartzeko joera.

Bestalde, elkarrizketak ikastolako aholkulariari eta irakasle bati egin zaizkie, gidoi bat erabiliz (Ikus 7.2.eranskina). Horretarako, Aristizabal, Gómez-Pintado, Ugalde eta Lasarteren (2018) artikulutik eskuratutako elkarrizketarako gidoia erabili da. Bertan elkarrizketatuei, hezkidetzak haientzako duen garrantziaz, irakasleen formakuntza behararen inguruan duten pertzepzioaz, beharrezko formakuntza motaz, ideia propioak zalantzan jartzeko eta jokabide pertsonalak aldatzeko beharraz galdetzen zaie. Hala ere, elkarrizketetan zehar ateratako informazioaren arabera galdera berriak egin dira, ahalik eta informazio gehien ateratzeko asmoz.

3.4. PROZEDURA

Ikerketa praktiketako lehenengo momentutik hasi zen, behaketaren bidez, hain zuzen ere. Aurrerago, abenduaren 16an, inkestaren galdetegia irakasleei helarazi zitzaion. Klaustroko bilera batean, irakasle bakoitzari galdetegiaren kopia bat eman zitzaion, hura momentuan betetzeko eskatuz. Hala ere, bilera hura asko luzatu zenez, denbora gutxi geratu zen inkestarako eta hurrengo egunetan entregatu zizkiguten galdetegiak. Hurrengo egunetan entregatzen zituzten bitartean, bi elkarrizketak burutu ziren eta, urte berriaren hasieran, esku-hartzeen planifikazioarekin eta inplementazioarekin hasi ginen.

2. taula: lanaren prozesuaren kronograma

TEORIA ETA DIAGNOSTIKOA		ESKU-HARTZEA	
19/11/14-20/01/21	Marko teorikoa osatu	20/01/02-07	Esku-hartzeen planifikazioa
19/12/15	Inkestaren prestakuntza	20/01/08	1.esku-hartzea burutu
19/12/16	Inkesta irakasleei helarazi	20/01/09	2.esku-hartzea burutu
19/12/17	Elkarrizketa aholkulariari	20/01/10	3.esku-hartzea burutu
19/12/18	Elkarrizketa irakasleari	20/02/12	4.esku-hartzea burutu
19/12/19	Inkesten azterketa	2020/02/19	5.esku-hartzea burutu
19/12/20-22	Elkarrizketen azterketa	20/03/03-10	Esku-hartzeen ebaluazioa

Ikerketaren helburu nagusiak praktikak egin ditugun ikastolan hezkidetzaren egoera zein den aztertzea eta, esku-hartze baten bitartez, 4 urteko gelan genero rol eta estereotipoen erreprodukzioa eraldatzen hastea direnez, eta gure hipotesiak aintzat hartuta, bi aldagaien arabera antolatu dugu hurrengo atala: diagnostikoa eta esku-hartzea. Lehenengoan, haurrek genero rol eta estereotipoen inguruan dituzten aurreiritziak eta eskolan hezkidetzaren egoera azalduko dira. Bigarreanean, aldiz, hiru fase berezituko dira: esku-hartzearen planifikazioa, esku-hartzea eta ebaluazioa.

4. DIAGNOSTIKOA ETA ESKU-HARTZEA

4.1. DIAGNOSTIKOA

4.1.1. GENERO ROL ETA ESTEREOTIPOAK: HAURREN AURREIRITZIAK


Hiru hilabetez eskolan egonda, behaketaren bitartez gaiaren inguruko informazio asko lortu izan dugu gelako egoerari dagokionez. Bertan oso nabarmena da txokoetara joaten direnean eta libreki jolasten uzten zaienean, neskek eta mutilek jarduera ezberdinak egiten zituztela. Izan ere, neskek marraztea eta margotzea nahiago izaten zuten eta mutilek, aldiz, argi mahaian eraikuntzak egitea gustuko izaten zuten.

Hau egunero errepikatzen zen, nahiz eta kasu bereziak zeuden, eta hau ekiditeko, askotan irakasleak proposatzen ziren marraztu egingo zutela denek eta, beste uneren batean, jolastu egingo zutela. Honela, haur talde heterogeneoak sortzen ziren txoko ezberdinetan eta eta ez zen horrelako genero bereizketarik gertatzen. Honen aurrean, galdera bat egin genion geure buruari: “genero bakoitzeko haurrak elkartzen dira toki horietan haien genero bereko lagunekin jolasteko edo elkartzen dira egiten duten ekintza hori gogoko dutelako?”. Tutoreari galdetzean, esan zuen egiten duten ekintza hori gogoko dutelako elkartzen direla.

Honen harira, patioan edo gelan zehar libreki zeudenean, askotan genero estereotipoen inguruko iruzkinak entzuten ziren: “Baina hori neskena da”, “Hori ezin dute mutilek egin”, eta abar. Horrelako egoeren aurrean, irakasleek gutxitan esku hartzen zuten, denbora faltagatik edo ez ohartzeagatik.


4.1.2. HEZKIDETZAREN EGOERA

Inkestaren emaitzei dagokienez, puntu gehienak atera dituenak, 70 lortu ditu eta gutxienak, 53 puntu. Honen arabera, eskola honetan irakasleek hezkidetzari garrantzia ematen diotela, jarrera baikorra dutela eta horretan lan egiteko prest daudela ikusi dugu.




1. irudia: inkestetan irakasleek ateratako puntuazioa

Inkestaren esaldi bakoitzaren emaitzak aztertuz, ikus dezakegu parte hartu duten irakasle guzti-guztiek pentsatzen dutela sexuen arteko berdintasun eraginkorra eta diskriminazio mota guztiei aurka egitea irakasgai guztietan zeharkako xedea izan behar litzatekeela ikastetxean. Bestalde, oro har, ez dute uste egungo eskola mistoaren ereduak genero berdintasuna lortzea oztopatzen duenik. Gainera, zalantzan jartzen dituzte irakasleek, oro har, kostata onartzen dituzten berdintasunaren inguruko planteamenduak.



2. irudia: galdetegiko esaldi bakoitzaren batez-besteko puntuazioa

Era berean, hezkidetzaren inguruko formakuntzak jaso edo ikastaroak egin dituzten galdetu zaie eta galdera honetan, bederatzi pertsonak baietz erantzun du, zortzik ezetz eta lauk ez du erantzun. Beraz, aholkulariak esan bezala, aurreko Hezkidetzeta Planetan irakasleek gaiaren inguruko formakuntza jaso zutela zehaztuta dagoen arren, oraindik ere hezkidetzaren inguruko formakuntzak edo ikastaroak egin ez dituzten irakasleak daude.



3. irudia: hezkidetzaren inguruko formakuntzen/ikastaroen galderaren emaitzak

Bestalde, elkarrizketei dagokienez, bi elkarrizketatuek esandakoa ikerketarako garrantzitsua izan da hezkidetzaren egoeran gehiago sakontzeko. Aholkulariak uste du ikastetxean hezkidetzari garrantzia ematen zaiola, klaustroak baduela gaiarekiko kontzientzia, eta lehentasunezko jarduera edo helburu gisa ikusten duela. Gainera, aurreko Hezkidetzaren Planetan irakasleek gaiaren inguruko formakuntza jaso zutela zehaztuta dago.

Elkarrizketatutako irakasleak, esaterako, Nahikoko formakuntzetan (Emakunderen berdintasunarentzako programa batean) parte hartu izan duela azaldu du, baina formakuntzetan lortutako materiala bere gelarako oso egokia ez zela aitortu du. Izan ere, zenbait unitate didaktikotan ikasleek ezin zuten ulertu gizonentzako eta emakumeentzako lan jakin batzuk daudela estereotipatuak, beraien errealitatean ez baitute hori ikusi. Orduan irakasleak ez daki nola jokatu behar duen, izan ere, ikasleek ez zuten bereizketarik egiten. Hala ere, onartzen du komeni dela ikasleek beste errealitate batzuk ere ezagutzea, alegia, begiak zabaltzea; baina orduan unitate didaktiko batzuk egokitu egin behar izaten dituzte eta, beraz, egokitze lan hori irakaslearen formazioaren eta borondatearen esku geratzen da.

Ikastolako Hezkidetzaren Plan berrian Eusko Jaurlaritzak zehazten dituen zortzi zutabeak agertzen dira, eta hauek aldaketa metodologikoaren barne sartu behar direla azpimarratzen du aholkulariak. Horrek irakasleek metodologian aldaketak egin behar dituztela inplikatzeko du. Aholkulariak esan bezala, hezkidetzaren garrantzia barneratuta balute, ez lukete plan baten beharrik izango eta, ondorioz, ez lukete jarduteko era berrizatu beharrik izango. Eskolaren proiektuen metodologia honetan, proiektu bat lantzen denean irakasleak arlo ezberdinak lantzeko eta proiektuan txertatzeko aukera batzuk topatzen jakin behar du. Bere ustez, proiektu bat garatzean momentu jakin batean gaiak hezkidetzarekin lotura izango luke.

Irakaslea ere bat dator aholkulariak dioenarekin, proiektu bakoitzean alderdi hori sartu beharrik izango dela azpimarratzen baitu. Izan ere, aitortzen du proiektuak prestatzerakoan, oro har, irakasleek ez dutela hezkidetzaren alderdia aintzat hartzen, baina horrek ez du esan nahi

egiten ez denik. Hala ere, martxoaren 8aren testuinguruan ez bada, onartzen du orokorrean ez direla hezkidetzaren inguruko jarduerak edo proiektuak egiten. Izan ere, irakasle bakoitzaren baitan geratzen da, ez dago programaziorik, oinarri sendorik edo prestakuntza nahikorik. Horregatik, curriculumean hezkidetzaz zehar lerro bezala sartu beharko litzatekeela uste du.

Halaber, aholkulariak dio ezinbesteko baldintza dela irakasleek eta ikasleek enpatia lantzea. Lehenengo lanketa eremua etxea izan beharko litzateke baina, onartzen du, maiz eskolari egokitzen zaiola lan hori egitea; beraz, irakasleek eta eskolako langile guztiek landu behar lukete hezkidetzaren gaia, maila indibidualean, edo proiektu baten baitan. Egungo gizartea indibidualista bihurtzen ari dela antzematen du eta, ikusita nora goazen, nondik gatozen eta zein balore galtzen ari garen, enpatiaren gaia eskolan lantzea funtsezkoa dela uste du.

Prestaturiko elkarrizketa hauetaz gain, beste irakasleekin izandako elkarrizketa informalek ere informazioa biltzeko balio izan digute; batzuek esan dute gelan eman daitezkeen gertakarietan martxan jartzen dutela hezkidetzaz eta ez dutela egunerokotasunean txertaturik edo ez dutela prebentziorako lantzen. Beste batzuek, aldiz, soilik martxoaren 8an edo aste horretan lantzen dute hezkidetzaz. Ondorioz, nahiz eta eskolan orokorrean hezkidetzari garrantzi handia ematen dioten, egun jakin batzuetan edo hainbat egoera sortzen direnean soilik lantzen dute eta normalean ez dira hezkidetzaren inguruko jarduerak edo proiektuak egiten.

Baina, esparru teorikoan esan bezala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hezkidetzako proiektuak egitea arautzen du eta, hutsune hori betetzeko eta hezkidetzaren gaia oinarri hartuz, genero rol eta estereotipoen erreprodukzioaren eraldaketan zentratzea eta praktiketako gelan esku-hartzea burutzea erabaki da. Hurrengo lerroetan esku-hartzearen planifikazioa, inplementazioa eta ebaluazioa azalduko dugu.

4.2. PLANIFIKAZIO FASEA

3. taula: lehen esku-hartzea

Data	2020/01/08 (Asteazkena)
Jarduerak	<p>1. Arrosa eta leuna¹ ipuina talde handian kontatuko da eta honen inguruko eztabaida sustatuko da, hainbat galderaren bitartez (Ikus 7.3.eranskina). Honetan, sexuaren araberako diskriminazio eta bereizketa garbia ikusten da non elefante sumisoek gurasoek esaten dutena egiten duten eta ezarritako edertasun estandarrak jarraitzen dituzten. Ipuinean zehar, protagonistak, Paskualinak, jasaten duen emozio aldaketa ikus daiteke, askatzean tristuratik poztasunera igarotzea. Liburu honen bitartez, ikasleei ikusarazi behar diegu nahi duten bezalakoak izateko eskubidea dutela, baita denak desberdinak garela eta pertsona guztiak errespetatu behar ditugula ere.</p> <p>2. Haurrei ipuinaren inguruan gehien gustatu zaiena marrazteko eskatuko diegu eta hura bukatzean, galdera batzuk egingo dizkiegu, eta marrazkian egin dutenaren zergatiaz galdetuko diegu.</p>
Konpetentziak (Heziberri 2020)	<ul style="list-style-type: none"> ● Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia ● Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia ● Elkarbizitzarako konpetentzia ● Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia ● Norbera izaten ikasteko konpetentzia ● Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia ● Konpetentzia sozial eta zibikoa ● Arterako konpetentzia
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> ● Gizaki guztiek, emakumeak edo gizonezkoak, eskubide eta aukera berdinak ditugula jakitea. ● Pertsona guztiek nahi duten bezala izateko eskubidea dutela ikastea. ● Estereotipo sexistak aztertzea ahalbidetzen duen pentsamendu kritikoa garatzen hastea.

¹ Turín, A.; Bosnia, N. (2013). *Arrosa eta leuna*. Iruñea: Pamiela/Kalandraka. Ipuin honek gai oso polemikoa planteatzen du, arrosa neskeentzat dela eta urdina, mutilentzat. Kasu honetan, arrosa elefante emeentzat eta grisa, elefante arrentzat. Emeek lore mota batzuk bakarrik jan ditzakete, zapozeko oso onak ez direnak, eta arrek, ordea, nahi duten guztia jan dezakete. Emeak hesian bakarrik egon daitezke eta arrak sabanan aske ibiltzen dira.

	<ul style="list-style-type: none"> • Jolasetan, janzeran, egon behar diren lekuetan eta abarrean ea nesken eta mutilen artean desberdintasunik egon behar den hausnartzea.
Eduki didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizaki guztiek, emakumeak edo gizonezkoak, eskubide eta aukera berdinak ditugu. • Pertsona guztiek nahi duten bezala izateko eskubidea dute. • Ez dago neska izateko edo mutil izateko modurik. • Denak desberdinak gara eta pertsona guztiak errespetatu behar dira.
Ebaluazio-irizpideak (Heziberri 2020)	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte ingurunea ezagutzeko jakin-mina adieraztea, erreferentziatzeko gizarte taldeetan gogoz parte hartuta. • Askotariko hizkuntzak erabiltzea sententzioak, emozioak, beharrezkoak eta gogoak ezagutu, adierazi eta, arian-arian, erregulatzeko. • Ahozko hizkuntza erabiltzea bere adinekoekin eta pertsona helduekin harremanak dituenean, komunikazio-xedeak aintzat hartuta eta entzuteko jarrera arretatsua eta errespetuzkoa izanda. • Elkarrizketen bidez edo txandaka parte hartzea komunikazio-egoeretan eta gizarte-harremaneko jolasetan. • Irakurtzeko eta idazteko jardueretan parte hartzea eta haiekiko interesa adieraztea, idatzizko testuak erabiltzen eta haien helburuak ulertzen hastea eta idazte-sistemaren ezaugarri batzuk ezagutzeko. • Artearen bitartekoak, materialak eta teknikak erabiliz adieraztea eta komunikatzea, eta haien aukerak arakatzeko interesa adieraztea, haiekin ekoizten direnak gozatzeko eta gainerako pertsonekin bizipen estetikoak eta komunikazioak konpartitzeko.

4. taula: bigarren esku-hartzea

Data	2020/01/09 (Osteguna)
Jarduera	Jarduera honetan, lehenik, talde handian haurren gurasoen etxeko lanen banaketaren estatistika egingo da. Horretarako, irakasleak haur bakoitzari ea bere etxean arroparekin lotutako lanak (arropa garbitu, zintzilikatu, tolestu, lisatu...) soilik amak, soilik aitak edo biek egiten dituzten. Horrela, irakaslea arbelean apuntatuko du eta bukatzean,

	<p>kasu bakoitzean ateratako emaitzak zenbatuko dituzte denen artean.</p> <p>Ondoren, ateratako emaitzen inguruan galderak egingo zaizkie haurrei, gaiaren inguruan hausnartzeko asmoz.</p>
<p>Konpetentziak (Heziberri 2020)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia • Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia • Elkarbizitzarako konpetentzia • Ekimen eta espirtu ekintzailerako konpetentzia • Norbera izaten ikasteko konpetentzia • Matematikarako konpetentzia • Konpetentzia sozial eta zibikoa
<p>Helburu didaktikoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko lanen banaketan dagoen sexismoa ezagutzea. • Emakumeek duten etxeko lanen kargaz ohartzea. • Zenbatzen ikasten hastea, irakasleak lagunduz. • Gehiago eta gutxiago bezalako kontzeptuak lantzea. • Estereotipo sexistak aztertzea ahalbidetzen duen pentsamendu kritikoa garatzen hastea. • Nesken eta mutilen artean desberdintasunik egon behar den hausnartzea.
<p>Eduki didaktikoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko lanen banaketan dagoen sexismoa ez da justua. • Kasu gehienetan, emakumeek gizonek baino etxeko lan gehiago egiten dituzte. • Etxeko lanetan kasu gehienetan gizonek bigarren maila batean daude. • Ez dugu utzi behar estereotipo sexistak jarraitzea. • Emakume askok, etxeko lanen karga nagusiaz gain, kanpoan ere lan egiten dute.
<p>Ebaluazio-irizpideak (Heziberri 2020)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte ingurunea ezagutzeko jakin-mina adieraztea, erreferentziatzeko gizarte taldeetan gogoz parte hartuta. • Askotariko hizkuntzak erabiltzea sentsazioak, emozioak, beharrianak eta gogoak ezagutu, adierazi eta, arian-arian, erregulatzeko. • Ahozko hizkuntza erabiltzea bere adinekoekin eta pertsona helduekin harremanak dituenean, komunikazio-xedeak aintzat hartuz.

	<p>hartuta eta entzuteko jarrera arretatsua eta errespetuzkoa izanda.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketen bidez edo txandaka parte hartzea komunikazio-egoeretan eta gizarte-harremaneko jolasetan. • Matematika-estrategia zenbait erabiltzea bizi duen mundua ulertzeko.
--	---

5. taula: hirugarren esku-hartzea

Data	2020/01/10 (Ostirala)
Jarduera	<p>Talde handian, hurrei genero estereotipoak jarraitzen ez dituzten pertsonen bi irudi erakutsiko zaizkie: gizon bat gonarekin eta takoiekin, eta emakume bat trajearekin (Ikus 7.4.eranskina).</p> <p>Honela, galderen bidez argazkiak aztertuko dira: “Zer ikusten duzue?”, “Zer da?”, “Nola dago jantzita?”... Haurren erreakzioak eta ekarpenak erabiliko dira hausnarketa sustatzeko eta azkenik, azalpen bat emango da aniztasunaren, errespetuaren eta berdintasunaren inguruan.</p>
Konpetentziak (Heziberri 2020)	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia • Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia • Elkarbizitzarako konpetentzia • Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia • Norbera izaten ikasteko konpetentzia • Konpetentzia sozial eta zibikoa
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona guztiek nahi duten bezala izateko eskubidea dutela ikastea. • Estereotipo sexistak aztertzea ahalbidetzen duen pentsamendu kritikoa garatzen hastea. • Jolasetan, janzkeran, egon behar diren lekuetan eta abarrean ea nesken eta mutilen artean desberdintasunik egon behar den hausnartzea.
Eduki didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona guztiek nahi duten bezala izateko eskubidea dute. • Ez dago neska izateko edo mutil izateko modurik. • Denak desberdinak gara eta pertsona guztiak errespetatu behar

	<p>dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da inor diskriminatu behar edo beste norbaiti barre egin.
<p>Ebaluazio-irizpideak (Heziberri 2020)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte ingurunea ezagutzeko jakin-mina adieraztea, erreferentziazko gizarte taldeetan gogoz parte hartuta. • Askotariko hizkuntzak erabiltzea sentrazioak, emozioak, beharrianak eta gogoak ezagutu, adierazi eta, arian-arian, erregulatzeko. • Ahozko hizkuntza erabiltzea bere adinekoekin eta pertsona helduekin harremanak dituenean, komunikazio-xedeak aintzat hartuta eta entzuteko jarrera arretatsua eta errespetuzkoa izanda. • Elkarrizketen bidez edo txandaka parte hartzea komunikazio-egoeretan eta gizarte-harremaneko jolasetan.

6. taula: laugarren esku-hartzea

Data	2020/02/12 (Asteazkena)
Jarduera	<p>Haurrei genero estereotipoak jarraitzen ez dituzten lanbide ezberdinetako pertsonen izenak asmatzea eskatuko zaie, hauek ikusi gabe. Argazkietan agertuko dira 3 emakume: suhiltzailea, militarra eta mekanikoa; eta 2 gizon: ile-apaintzailea eta etxeko-gizona (Ikus 7.5.eranskina).</p> <p>Honela, argazki bakoitzarekin prozedura berdina egingo da: erakutsi gabe, pertsona horrek lanean zer egiten duen kontatuko zaie, istorio moduan, eta, haien buruetan genero estereotipoak barneratuta dituzten ebaluatzeko eta, sexismo hori detektatzeko, genero bakoitzari egokitzen zaizkion adjektiboak eta rolak nabarmenduko dira.</p> <p>Ondoren, aukeratutako argazkiaren pertsonari haurrek izena jarriko diote eta irakasleak izenen zerrenda egingo du. Jarraitzeko, argazkia erakutsiko zaio eta haurren erreakzioak eta ekarpenak oso garrantzitsuak izango dira detekzio honetan.</p> <p>Behin argazki guztiak ikusi dituztela, bakoitzari egokitutako izenak banan-banan aztertuko dira generoaren ikuspegitik eta haurrei ateratako emaitzen inguruan hausnartuaraziko zaie.</p>
Konpetentziak (Heziberri 2020)	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia • Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarbizitzarako konpetentzia • Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia • Norbera izaten ikasteko konpetentzia • Konpetentzia sozial eta zibikoa
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizaki guztiek, emakumeak edo gizonezkoak, eskubide eta aukera berdinak ditugula jakitea. • Pertsona guztiek nahi duten lanbidean lan egiteko eskubidea dutela ikastea. • Estereotipo sexistak aztertzea ahalbidetzen duen pentsamendu kritikoa garatzen hastea. • Nesken eta mutilen artean desberdintasunik egon behar den hausnartzea. • Gizarteak lanbide jakin batzuei genero jakin bat egokitzen diela ohartaraztea.
Eduki didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizaki guztiek, emakumeak edo gizonezkoak, eskubide eta aukera berdinak ditugu. • Pertsona guztiek nahi duten lanbidean lan egiteko eskubidea dute • Ez dugu utzi behar estereotipo sexistak jarraitzea. • Ez da inor diskriminatu behar edo beste norbaiti barre egin. • Gizarteak lanbide jakin batzuei genero jakin bat egokitzen die.
Ebaluazio-irizpideak <i>(Heziberri 2020)</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte ingurunea ezagutzeko jakin-mina adieraztea, erreferentziazko gizarte taldeetan gogoz parte hartuta. • Askotariko hizkuntzak erabiltzea sententzioak, emozioak, beharrianak eta gogoak ezagutu, adierazi eta, arian-arian, erregulatzeko. • Ahozko hizkuntza erabiltzea bere adinekoekin eta pertsona helduekin harremanak dituenean, komunikazio-xedeak aintzat hartuta eta entzuteko jarrera arretatsua eta errespetuzkoa izanda. • Elkarriketen bidez edo txandaka parte hartzea komunikazio-egoeretan eta gizarte-harremaneko jolasetan.

7. taula: bosgarren esku-hartzea

Data	2020/02/19 (Asteazkena)
Jarduera	<p>1. Urtarrilaren 16an (hilabete bat lehenago) Aitor pertsonaiaren marraskia sortu nuen, ile luzea duen eta gona duen mutikoa dena, eta harrezkeroztik hurrek askotan galdetzen zidaten hari buruz eta marraskia erakusteko eskatzen zidaten, irribarre eginez. Orduan, beste pertsonaia bat sortzea erabaki nuen, genero estereotipoak jarraitzen ez zituen neska bat, alegia (Ikus 7.6.eranskina).</p> <p>Jarduera honetan, bi pertsonaien inguruan hausnartuko dugu, nola dauden jantzita, zer gustatzen zaien, nolakoak diren, etab. Honela, genero estereotipoen gaia berriz landuko dugu. Baina batez ere ikasleei ulertarazi behar diegu bakoitza desberdina dela eta denak errespetatu behar direla.</p> <p>2. Bukatzean, bi pertsonaia hauentzako lagunak sortuko dituzte, genero estereotipoak jarraitzen ez dituzten beste pertsonaiak marraztuz.</p>
Konpetentziak (Heziberri 2020)	<ul style="list-style-type: none"> ● Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia ● Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia ● Elkarbizitzarako konpetentzia ● Ekimen eta espirtu ekintzailerako konpetentzia ● Norbera izaten ikasteko konpetentzia ● Konpetentzia sozial eta zibikoa ● Arterako konpetentzia
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> ● Gizaki guztiek, emakumeak edo gizonezkoak, eskubide eta aukera berdinak ditugula jakitea. ● Pertsona guztiek nahi duten bezala izateko eskubidea dutela ikastea. ● Estereotipo sexistak aztertzea ahalbidetzen duen pentsamendu kritikoa garatzen hastea. ● Jolasetan, janzkeran, egon behar diren lekuetan eta abarrear ea nesken eta mutilen artean desberdintasunik egon behar den hausnartzea.
Eduki didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> ● Gizaki guztiek, emakumeak edo gizonezkoak, eskubide eta aukera berdinak ditugu.

	<ul style="list-style-type: none"> ● Pertsona guztiek nahi duten bezala izateko eskubidea dute. ● Ez dago neska izateko edo mutil izateko modurik. ● Denak desberdinak gara eta pertsona guztiak errespetatu behar dira. ● Ez da inor diskriminatu behar edo beste norbaiti barre egin. ● Ez dugu utzi behar estereotipo sexistak jarraitzea.
<p>Ebaluazio-irizpideak (Heziberri 2020)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Gizarte ingurunea ezagutzeko jakin-mina adieraztea, erreferentziatzko gizarte taldeetan gogoz parte hartuta. ● Askotariko hizkuntzak erabiltzea sentrazioak, emozioak, beharrianak eta gogoak ezagutu, adierazi eta, arian-arian, erregulatzeko. ● Ahozko hizkuntza erabiltzea bere adinekoekin eta pertsona helduekin harremanak dituenean, komunikazio-xedeak aintzat hartuta eta entzuteko jarrera arretatsua eta errespetuzkoa izanda. ● Elkarrizketen bidez edo txandaka parte hartzea komunikazio-egoeretan eta gizarte-harremaneko jolasetan. ● Irakurtzeko eta idazteko jardueretan parte hartzea eta haiekiko interesa adieraztea, idatzizko testuak erabiltzen eta haien helburuak ulertzen hastea eta idazte-sistemaren ezaugarri batzuk ezagutzea. ● Artearen bitartekoak, materialak eta teknikak erabiliz adieraztea eta komunikatzea, eta haien aukerak arakatzeko interesa adieraztea, haiekin ekoizten direnak gozatzeko eta gainerako pertsonekin bizipen estetikoak eta komunikazioak konpartitzeko.

4.3. ESKU-HARTZE FASEA

Esku hartze bakoitzaren konpetentziak, helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazio irizpideak definitu ondoren, atal honetan esku-hartzearen gauzatzeari buruzko xehetasunak emango dira. Esku-hartzearen helburu orokorra gelan genero rol eta estereotipoen erreproduzioa eta hauren ikuspegia eraldatzen hastea da. Horretarako, haurrak genero bereizketaren kontzientzia hartzen hastea; etxeko lanen genero banaketaz ohartzen hastea; genero estereotipoak zalantzan jartzen hastea; eta, azkenik, lanbideetako sexismoaz konturatzen hastea zehaztu dira helburu zehatz gisa.

Behin ikastolaren diagnostikoa eta esku-hartzeen planifikazioa eginda, esku-hartzeak 4 urtekoen gelan burutu ziren. Hasiera batean, esku-hartze guztiak jarraian egiteko asmoa

genuen, baina, 3.esku-hartzearen ondoren, proiektu berri batekin hasi ziren eta hurrengo biak atzeratu egin ziren. Esku-hartze guztiak korroan talde handian hasi dira eta zenbait saiotan, banakako marrazkiak egin behar zituztenean, mahaian eserita burutu zituzten. Hasierako asmoa zen marrazkia hala nahi zuenak egitea baina, tutorearen gidaritzarekin, denek egitea lortu zen. Izan ere, tutorea bigarren plano batean geratzen saiatzen bazen ere, askotan parte hartzen zuen eta lantzen ari ginena gehiago garatzen laguntzen zuen, baita arreta galtzen zuten haurrak kontrolatzeko ere.

4.4. EBALUAZIO FASEA

Esku-hartzea burutu ondoren, hura ebaluatzea eta emaitzak ateratzea dagokigu. Ikerketaren koherentzia mantentzeko, ebaluazioaren emaitzak antolatzeko helburu espezifikoean zehaztutako aldagaiak erabiliko ditugu kategoria gisa.

Genero bereizketaren kontzientzia hartzen hastea

Helburu hau lortu nahian, lehen esku-hartzean, “Arrosa eta leuna” ipuinaren bidez bertako errealitatea gure gizartearekin alderatzen saiatu gara. Horretarako, lehenik errealitate hori ulertarazi behar zaie eta, orduan, galdera hau egin diegu: “zergatik izan behar dute elefante neskek arrosak eta elefante mutilek grisak?”. Haur batek elefanteak ezberdintzeko balio duela esan du eta beste batek elefante neskek politagoak izateko loreak jan behar dituztela esan du, bestela itsusiak izango lirakeela. Beraz, bi generoak ezberdintzea ongi iruditzen zaiela erakutsi dute.

Honela, haurrak konturarazi ditugu protagonista hasieran triste zegoela eta orduan galdetu diegu: “Triste zegoen benetan arrosa izan nahi zuelako edo ama eta aita haserretzen zirelako?”. Honi haur batek erantzun dio: “Ama triste jartzen zelako eta aita haserretzen zelako”. Ipuinaren bukaeran, aldiz, pozik zegoela ohartu dira eta libre egoteagatik zela esan dute.

Jarraitzeko, galderen bitartez errealitatearekin loturak egiten hasi gara (neskentzako makillajea, neska eta mutilak jolasteko bereiztea, eta abar), behatzeko ea berdintasunak ikusten dituzten ipuineko elefanteen eta pertsonen artean. Hala ere, haien erantzunekin ondorioztatu dezakegu haurrek oraindik ez dutela ikusten loturarik ipuineko elefante emeen eta gizarteko emakumeen eta nesken egoeren artean.


Orduan, gizartean dagoen sexismoa adierazi nahian, “pertsona gaizto” batzuek pentsatzen zutenaz hitz egiten hasi ginen. “Pertsona gaizto” horiek pertsona sexistak

irudikatuko lituzkete eta haien ikuspegia azaltzeko adibideak eman genizkien haurrei, uler zezaten: “neskak ezin dira haserretu”, “mutilek ezin dituzte azazkalak margotueta gisako esaldiak. Adibide bakoitzaren ondoren, haien iritzia eskatzean, beti gaizki iruditzen zitzaizela esaten zuten eta ereduak ematen zituzten, berez, egin zitekeela frogatzeko.

Beraz, nahiz eta sexismoaz guztiz kontziente ez izan, gutxienez “persona gaizto” haiek pentsatzen zutena kritikatzeko hasi ziren eta orokorrean genero diskriminazioaren aurkako jarrera bat azaleratu zuten.

Etxeko lanen genero banaketaz ohartzen hastea

Bigarren esku-hartzearen bidez, haur bakoitzari (korroaren ordena jarraituz) honako hau galdetu genien: ea bere etxean arropa garbitu, zintzilikatu, tolestu, lisatu, eta abar soilik amak, soilik aitak edo biek egiten ote duten. Ateratako emaitzak zenbatu ondoren, hauek izan dira datuak: 2 etxetan aitak soilik egiten dituzte lan hauek, 12 etxetan amak soilik eta 5 etxetan bi gurasoek egiten dituzte.



4. irudia: etxeko lanen banaketa ikasleen etxeetan

Orduan, emaitzak aztertu ditugu eta haurrak konturatu dira gelako ama gehienek arroparekin lotutako lanak egiten dituztela; sexismoa oso nabarmena izan da. Amek arroparekin lotutako etxeko lanak gehiago egiten dituztela ikustean, denak isilik geratu dira; ama eta aitaren artean zein desberdintasun dagoen galdetu zaie eta isilik jarraitu dute. Orduan, hori garatzen saiatu gara galdera gehiagorekin eta, azkenean, espero genuen erantzuna eman digute: ama neska dela eta aita mutila.

Emaitzak nabarmendu nahian, tutoreak zera esan die hurrei: “ze gaizki hainbeste desberdintasun egotea eta, gainera, ama askok etxetik kanpo egingo dute lan ziurrenik!”. Orduan, amen artean ea zenbatek egiten duten lan etxetik kanpo aztertzen hasi gara eta banan-banan bai ala ez galdetu diegu. Ondoren, emaitza horiek ikusirik, tutoreak esandakoa baieztatu dugu eta hurrek harrিতuta jarraitzen zuten.

Bukatzeko, irakasleak eta biok azalpen batzuk eman dizkiegu esanez amak, neska izateagatik, ez duela aitak baino etxeko lan gehiago egin behar, eta guk etxean hori ikusten badugu, esan egin behar diegula gaizki dagoela. Gainera, azpimarratu diegu beraiek handitzen direnean, etxeko gainerako kideek adina lan egin beharko dutela, berdin duela neska ala mutila izan; denek zikintzen eta desordenatzen badute, denek garbitu eta ordenatu behar dutelako.

Genero estereotipoak zalantzan jartzen hastea

Helburu honetarako, hirugarren esku-hartzea burutu dugu. Bertan gizon bat gonarekin eta takoiarekin, eta emakume bat trajearekin agertzen diren argazkiak erakutsi dizkiegu. Lehenengo, emakumearen irudia erakustean eta hura aztertzean, ez da erreakzio esanguratsurik izan, baina gizonaren irudia erakutsi bezain laster, haur asko barrez hasi da. Hiru hurrek barrezka esan dute: “Baina gona dauka!”, eta haietako batek erantsi du: “ze *farregarria!*”. Serio-serio geratu gara eta mutil batek gona jartzea zergatik den barregarria galdetu diegu, ezer ulertuko ez bagenu bezala. Honela, batek erantzun du: “eske mutilek ezin dituzte gonak jarri, neskena da”. Orduan hori zergatik den galdetu diegu eta beste batek “*zergatik bai*” erantzun du, baina ezin izan du hori garatu eta besteek ez dute ezer esan.

Orduan, “Arrosa eta leuna” ipuinarekin loturak egiten hasi ginen eta gogorarazi zitzaizen ipuineko protagonistari ere esaten ziotela ezin zituela mutilek egiten zituzten gauzak egin eta triste zegoela horregatik; eta gero nahi zuena egiten hasi zenean alai zebilela. Honi gehitu genion mutil bati esaten bazaio ezin duela gona edo takoiak jarri, triste jarriko dela; baina uzten bazaio nahi duena janzten, pozik jarriko dela. Honen ondoren, gehiengoak ulertu du eta batek erantsi du: “*klaro* eta libre izango da”.

Halaber, bosgarren esku-hartzea ere helburu hau lortzeko burutu da. Jarduera honetan, bi pertsonaia erakutsi zaizkie: Aitor eta Maite. Lehenengo Aitor izan da, jada askok ezagutzen dutena, eta gero, berria dena, Maite. Banan-banan marrazkiak aztertu ditugu, galderen gidarekin: “nor da?”, “nolako ilea du?”, “nola dago jantzita?”, “ba al dakizue zerekin jolastea duen gustuko?” (ondoan baloi bat agertzen da), “badakizue Aitorri panpinekin jolastea asko gustatzen zaiola?”.

Marrazkiak aztertzen bukatu ondoren, Aitor eta Maite oso triste sentitzen direla esan diegu eta orduan hurrek zergatia galdetu digute. Guk azaldu diegu jendeak barre egiten diela Aitorrek ile luzea eta gona izategatik eta panpinekin jolasteagatik, eta Maitek ile motza izategatik eta futbolean jolasteagatik. Haien emozioak behin baino gehiagotan azpimarratu genituen eta aurpegiko keinuen bitartez guk ere tristura sentitzen genuela adierazi diegu.

Honela, egoeraren inguruan hausnartzeko galderak egin zaizkie: “Barre egiten zien jende horrek ondo egiten du?”, “Zuri (haur bati zuzenduz) gustatzen zaizu jendeak zuri barre egitea?”, “Nola sentitzen zara?”. Momentu horretan haur batek esan du ez zaiola gustatzen besteek imitatzea eta berak esandakoa errepikatzen dutenean. Hau aprobetxatuz, berak sentitzen duenaren inguruan galdetu diegu eta emozio horiek nabarmentzean, beste haur batzuek ere gaizki sentiarazten dituzten egoerak azaldu dituzte.

Orduan, Aitor eta Maite ere horrela sentitzen direla errepikatu diegu, triste eta bakarrik. Hau esanda, honako hau galdetu diegu: “eta zer egin dezakegu guk haiek pozik egoteko?”. Baina inork ez du erantzun eta une hori beste galdera bat egiteko baliatu dugu: “haintzako lagunak marrazten baditugu pozik egongo al dira?”. Proposamen hau oso ideia ona iruditu zaie. Honela, Aitor eta Maitearen lagun berri horiek aurretik aipatu dizkiegun "pertsona gaiztoek" gustuko ez dituzten bezalakoak izan behar direla esan diegu, ezberdinak, eta adibideak eman dizkiegu.

Honela, marrazkiak egitera joan dira eta, marrazten hasi direla, gogorarazi zaie nolakoak izan behar diren lagun berri horiek (eta nolakoak ez diren izan behar). Hala ere, ez gaude ziur ea ondo ulertu duten eginbeharrekoa, izan ere, haur asko genero estereotipoen arabera marrazkiak egiten hasi da: gona eta ile luzea dituzten neskak eta futbolean aritzen diren eta ile motza duten mutilak marraztuz (Ikus 7.7.eranskina).

Lanbideetako sexismoaz konturatzen hastea

Honetarako, lanbide ezberdinak agertzen diren argazkiak eta genero estereotipoak jarraitzen ez dituzten pertsonak agertzen ziren argazkiak erakutsi dizkiegu. Lehenik, emakume suhiltzailearen argazkia aukeratu eta, erakutsi gabe, pertsona horrek lanean zer egiten duen kontatu zaie, betiere, “indartsua”, “ausarta” eta gisako adjektiboak erabiliz. Honela, genero estereotipoak jarraituta, gizon bati buruz ari garela pentsatuko lukete.

Ondoren, pertsona horri izena jarri behar dietela esan diegu, nahi duenak eskua altxatzea eskatuz. Izenen zerrenda egin eta 5 izenetik 3 gizonenak dira eta bi emakumeena.

Azkenik, argazkia erakutsi diegu eta haurrak isilik geratu dira, harriduragatik edo dezepzioagatik agian; bat-batean batek isiltasuna apurtu eta esan du: “A/a, neska da.”

Argazki bakoitzarekin prozedura berdina burutu eta, behin argazki guztiak ikusi dituztela, arbelean taulako zutabe bakoitzaren azpian zeloarekin itsatsi eta ateratako emaitzak aztertu ditugu. Argazki bakoitzari egokitutako izenak banan-banan aztertu eta genero bakoitzaren izenak zenbatzen hasi gara, lanbideari egokitu zaion genero nagusia zein izan den behatzeko.



5. irudia: lanbide ezberdinetako pertsonen izenak egokitutako izenak

Harrigarriena ile-apaintzailearen kasua izan da, 6 izenetik 5 gizonekoentzat erabiltzen diren izenak izan baitira. Zergatia galdetzean, ezin izan dute erantzun (batek “Zergatik ba” esan zuen); orduan galdetu diegu ea gizoneko ile-apaintzailerik ezagutzen ote duten eta soilik batek erantzun zuen, bere etxe ondoko ile-apaindegian gizon batek lan egiten zuela esanez.

Hala ere, emaitzak ez dira izan espero genituenak, hurrek izen anitzak esan baitituzte lanbide guztietan, bi generotakoak. Izan ere, hurrek ez dituzte izenak esan lanbide bakoitzerako genero jakin bat pentsatuz. Gainera, kasu askotan beren izenak esan dituzte, edo gustuko dituztenak, barregarriak iruditzen zaizkienak, edota asmatutakoak. Beraz, kasu honetan uste dugu emaitzak ez direla oso fidagarriak izan jakiteko ea hurrek lanbide batzuei genero jakin bat egokitzen dieten, gizarteak egiten duen bezala.

5. ONDORIOAK

Lana bukatze aldera, aipatzekoa da lanaren hasieran zehaztutako bi hipotesiak bete egin direla, bai ikerketa-diagnostikoaren ingurukoa, bai esku-hartzearen ingurukoa. Alde batetik, hezkidetzaren egoeraren diagnostikoari dagokionez, nahiz eta eskola honetan irakasleek hezkidetzari garrantzia eman, jarrera baikorra izan eta gaian lan egiteko prest agertu, ez dago inon zehaztuta nola burutu hezkidetzaren inguruko proiektu bat. Inkesten emaitzetan ikusi dugun bezala, irakasle asko ez daude formatuta horretarako. Izan ere, genero estereotipoen haustura bultzatzeko dokumentu idatzirik, ala proposamen didaktikoak ez izateak, estereotipoak erreproduzitzen ez dituen irakaskuntza garatzeko zailtasunak eragiten ditu, irakasleen funtzioa eta lana oztopatuz. Beraz, nahiz eta Haur Hezkuntzako curriculumean hezkidetzaren eman behar dela esan, irakasle bakoitzaren edo ikastetxe bakoitzaren esku geratzen da hezkidetzaren martxan jartzeko modua eta hori ikasleei transmititu egiten zaie.

Lehen Hezkuntzako irakasleak elkarrizketan esan bezala, bere ustez hezkidetzaren zehar-lerro gisa landu beharko litzateke eta hori da Reizabalek (2015) bere liburuan proposatzen duen aukeratariko bat, hain zuzen ere. Izan ere, eduki eta gaitasun hezkidetzailleak jorratzeko, curriculum formala osatzen duten ikasgai guztietan hezkidetzaren txertatzea estrategia bat izan daiteke. Honekin, oso ideia egokia izan daiteke bakerako hezkuntza eta gaitasun sozialak eta emozionalak lantzeko hezkidetzaren erabilteza (Reizabal, 2015). Honela, ikasleen genero ikuspegia eta aniztasun positiboa lantzearekin batera, bakearekin, gatazkekin eta emozioekin lotutako ezagutzak lortzeko, gatazkek konpontzeko, besteekin erlazionatzeko, emozioak erregulatzeko, norberarekiko eta besteekiko errespetua izateko, eta enpatikoak eta baikorrak izateko gaitasunak garatuko lituzkete hurrek.

Halaber, ikusi dugunez, eskolan, oro har, ez dira hezkidetzaren inguruko jarduerak edo proiektuak egiten eta soilik egun jakin batzuetan edo honen inguruko egoerak gertatzean lantzen dituzte. Hala ere, hurrek, beren aldetik, genero estereotipoak erreproduzitzen dituzte, oro har, aurreiritziak plazaratzen dituztenean. Zentzu horretan, irakaslea kontziente ez bada, eta esku hartzen ez badu, hezkidetzaren lortu nahi duenaren kontrako helburua lortzen da (Rodríguez eta Torio, 2005). Beraz, horrelako egoerak prebenitzeko esku-hartzeak burutu behar direla uste dugu, batez ere Haur Hezkuntzan.

Beste alde batetik, esku-hartzeari dagokionez, orokorrean egin dugun esku-hartzean izandako sententzia ona nabarmentzekoa da, jardueraren gehienetan lanaren helburu espezifikoak eta jardueraren helburu didaktikoak betetzen hasi zirelako. Beraz, esku hartze hezkidetzailleak egiten badira, Haur Hezkuntzatik bertatik genero binarismo hori eraldatzen

lagun dezakegula ikusi dugu.

Laugarren esku-hartzean, esaterako, emaitzak ez ziren izan espero genituenak, izan ere, ateratako emaitzetan ez zen sexismorik nabarmendu, hurrek ez baitzituzten izenak esan lanbide bakoitzerako genero jakin bat pentsatuz. Genero rolen eta estereotipoen erreprodukzio eza erakustea emaitza pozgarria den arren, honek ez du esan nahi hurrek lanbideak genero jakin batekin lotzen ez dituztenik. Izan ere, Reizabalek (2015) azaltzen duen moduan, neskek haien burua zaintza lanekin zein edertasunarekin lotzeko joera izaten dute eta mutilek, ordea, indar fisikoarekin.

Haur Hezkuntzako 4 urteko hurrek, urte gutxi izan arren, genero rol eta estereotipo batzuk jada barneratuta dituztela ikusi dugu. Aurretik esan bezala, oro har, neskek eta mutilek jardura ezberdinak egiten zituztela ikusi dugu eta hau egunero errepikatzen zen. Tomasiniaren (2008) arabera, Haur Hezkuntzako etapan hurrek sexuarekin zerikusia duten ekintzak balioesteko eta hauek genero kategorietan etiketatzeko gai dira. Gainera, Kuhn-en (1978, Reizabal 2015tik jaso) ikerketen arabera, adin horretako hurrek genero estereotipoetan oinarritutako jarduerak egozten dizkiete sexu bakoitzeko kideei. Jolas eta jostailuen lehentasunei dagokienez, genero identitatea garatu eta nesken eta mutilen jostailuak sailkatzeko gai izan baino lehen agertzen dira sexuaren araberako ezberdintasunak.

Honela ere, beste ikerketa askok erakusten duten moduan, hurrek sexu bereko jolaskideekiko lehentasuna 2-3 urtetik aurrera garatzen dute. Lehentasun horri eta beste sexukoak arbuizatzeari genero segregazioa esaten zaio. Neskek 2. urterako jolaskide moduan neskak nahiago izateko joera garatzen dute eta mutilek, berriz, urtebete geroago. Hala, 4-5 urterekin beste sexuko jolaskideak arbuizaten hasten dira hurrek (Reizabal, 2015). Beraz, ikerketa askoren emaitzek adierazten dutena ikusirik, ez ginateke oker egongo esaten badugu 4 urteko gela honetan ere genero segregazioa islatzen dela.

Honela, bi helburu orokorrak lortu ditugula esan dezakegu; izan ere, praktikak egin ditugun ikastolan hezkidetzaren egoera zein den aztertu dugu eta Haur Hezkuntzako 4 urteko hurren gelan genero rol eta estereotipoen erreprodukzioa eraldatzen hasteko esku-hartze bat aurkeztu dugu. Helburu espezifikoiei dagokienez, lehenik, eskolako irakasleek hezkidetzarekiko dituzten jarrerak inkestetatik ateratako informazioarekin ezagutu ditugu; baina praktika hezkidetzailleak garatzeko erraztasunak aztertzeke berriz, elkarrizketak egin ditugu eta, ondorioztatu dugu, ikergaiari buruzko jaso dugun informazioa sakonagoa izan zitekeela baldin eta elkarrizketa gehiago egin izan bagenitu, baina hori etorkizuneko beste ikerketa baterako utzi beharko genuke.

Esku-hartzeari dagokionez, Haur Hezkuntzako 4 urteko haur gehienak genero bereizketaren kontzientzia hartzen hastea lortu dugula iruditzen zaigu, nahiz egia den haur guzti-guztiek ez zutela guk proposatutako jardueretan parte hartu. Jarraitzeko, etxeko lanen genero banaketaz ohartzen hasi direla uste dugu, ateratako emaitzetan gurasoen arteko aldeak oso nabarmenak zirelako eta haurrek harridura adierazi zutelako. Era berean, genero estereotipoak zalantzan jartzen hasi zirelaren sentsazioa dugu, saioen artean aurretik ikasitakoarekin loturak egiteko gai zirelako. Hala ere, esku-hartze gehiago egin beharko litzateke haurrek genero estereotipoak guztiz zalantzan jartzeko. Azkenik, ez dugu uste lanbideetako sexismoz konturatzen hasi direnik, beharbada jarduera ez zen oso argia izan, edo agian oraindik lanbideetan ez dituzten desberdintasunik ikusten gizonen eta emakumeen artean.

Lanarekin bukatzeko, esan beharra dugu hezkidetzara iristeko asko geratzen zaigula, baina arazoa zein den garbi badugu eta hortaz kontziente bagara, aurrerapauso handiak egin ditzakegu irakaskuntzan. Horretarako, etorkizuneko irakasleoi ondo formatzea dagokigu, irakaskuntza hezkidetzaille egoki bat emateko, genero roletan eta estereotipoetan erori gabe. Hala ere, Hala ere, azpimarratu nahi genuke hemen, ez dela nahikoa ikastetxeak hezkidetzatxertatu nahi izatea. Eta, era berean, ardura osoa eskolaren esku geratzea, haurrek gizartean etengabe eredu sexistak ikusten dituzten bitartean; eragile sozializatzaile guztien ardura da. Beraz, gizartetik ikasitako sexismoa neutralizatzeko behar-beharrezkoa da rol aktiboa izatea eta esku hartzea, etengabeko formakuntza egokia jasoz.

6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aristizabal, P., Gómez-Pintado, A., Ugalde, A. I. eta Lasarte, G. (2018). La mirada coeducativa en la formación del profesorado. *Revista Complutense de Educación*, 29 (1), 79-95. <https://revistas.ucm.es/index.php/RCED/article/view/52031/52628> helbidetik eskuratua.
- Barberá Heredia, E., Sarrió, M., Ramos, A. eta Candela, C. (2002). Mas allá del techo de cristal. *Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración*, 40, 55-68. http://www.mitramiss.gob.es/es/publica/pub_electronicas/destacadas/revista/numeros/40/Estudios03.pdf helbidetik eskuratua.
- Blanco, N. [koor.] (2001). *Educar en Femenino y en Masculino*. Madril: Akal.

- Caro, M.T, Valverde, M.T. eta Gonzalez, M. (2015). *Guía de Trabajos de Fin de Grado en Educación*. Madril: Pirámide.
- Cortés, G. (1997). Confiabilidad y validez en estudios cualitativos. *Educación y Ciencia*, 1(1), 77-82.
- De Beauvoir, S. (1949). *El Segundo Sexo* [14. argitalpena, gaztelaniaz, 2019an]. Paris: Gallimard.
- Díaz-Pinés Sendra, C. (2005). Diagnóstico sobre la realidad en los centros en materia de igualdad. *I Plan de Igualdad entre hombres y mujeres en Educación*.
<http://www.juntadeandalucia.es/educacion/portals/delegate/content/a677917d-5ace-4425-aafa-f8fdbcb3315b8> helbidetik eskuratua.
- Emakunde (2008). *Gizonak, berdintasuna eta maskulinitasun berriak*.
http://www.berdingune.euskadi.eus/u89-congizon/eu/contenidos/enlace/enlaces_mochila_gizonduz/eu_gizonduz/adjuntos/guia_masculinidad_eusk.pdf helbidetik eskuratua.
- Emakunde (2015). *Nahiko! programari dagozkion ikaskuntza gida: laburpena, ondorioak eta esperientzia pilotuak*. Vitoria-Gasteiz.
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto_nahiko_intro/eu_def_adjuntos/nahiko_gida.pdf helbidetik eskuratua.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (2018). *Emakumeak Bizikidetzan. Aniztasunean bizikidetzatza*.
http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/1406/12-EGK-EMA_eu.pdf helbidetik eskuratua.
- Eusko Jaurlaritza (2015). *Haur Hezkuntzako curriculum Dekretua (142)*.
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf> helbidetik eskuratua.
- Eusko Jaurlaritza (2019). *EAEko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetzatza-Plana, berdintasunaren eta tratatu onaren bidean, 2019-2023* (1).
http://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=052381&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf helbidetik eskuratua.
- Igartua, J.J. eta Humanes, M.L. (2004). *El método científico aplicado a la investigación en comunicación social*.
https://www.academia.edu/6859650/El_m%C3%A9todo_cient%C3%ADfico_aplicado_a_la_investigaci%C3%B3n_en_comunicaci%C3%B3n_social helbidetik eskuratua.

- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Leioa: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua. <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf> helbidetik eskuratua.
- Lukas, J.F. eta Santiago, K. (2016). *Hezkuntza-Ebaluazioa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Michel, A. (1987). *Fuera moldes: hacia una superación del sexismo en los libros infantiles y escolares*. Bartzelona: UNESCO.
- Reizabal, L. (2015). *Genero-berdintasunean hezteko gida. Familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat*. Bilbo: UEU.
- Rodríguez, M.C. eta Torio, S. (2005). El discurso de género del profesorado de educación infantil: hablando acerca de la ética del cuidado. *Revista Complutense de Educación*, 16(2), 471-487. <https://revistas.ucm.es/index.php/RCED/article/view/RCED0505220471A> helbidetik eskuratua.
- Rodríguez, Y., Lameiras, M., Carrera, M.V. eta Faílde, J.M. (2009). Aproximación conceptual al sexismo ambivalente: Estado de la cuestión. *Summa Psicológica UST*, 6(2), 131-142. Vigo: Universidad de Vigo. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3113480> helbidetik eskuratua.
- Rubin, G. (1986). El tráfico de mujeres: Notas sobre la “economía política” del sexo. *Nueva antropología*, 30(8), México. <http://www.juridicas.unam.mx/publica/librev/rev/nuant/cont/30/cnt/cnt7.pdf> helbidetik eskuratua.
- Tomasini, M. (2008). Categorización sexual y socialización escolar en nivel inicial. In Morgade, G. eta Alonso, G. *Cuerpos y sexualidades en la escuela. De la “normalidad” a la disidencia*, 18, 93-110. Buenos Aires: Paidós. <http://revistascientificas.filo.uba.ar/index.php/mora/article/download/351/328> helbidetik eskuratua.
- Ugarte, B. (2009). Hezkidetza lantzeko klabe batzuk. Wikimedia. https://upload.wikimedia.org/wikibooks/eu/0/04/Hezkidetza_lantzeko_klabe_batzuk_-_EC.pdf helbidetik eskuratua.

ERANSKINAK

1. eranskina: irakasleen jarrerak hezkidetza ikupegitik aztertzeko inkesta

- 1: GUZTIZ DESADOS
- 2: DESADOS
- 3: ZALANTZAN
- 4: ADOS
- 5: GUZTIZ ADOS

1. Sexuen arteko berdintasun eraginkorra eta diskriminazio mota guztiei aurka egitea irakasgai guztietan zeharkako xedea izan behar da gure zentroan.	1 2 3 4 5
2. Egungo eskola mistoaren ereduak genero berdintasuna lortzea oztopatzen du.	1 2 3 4 5
3. Gure zentroak hezkidetza eredu batetik funtzionatu behar du.	1 2 3 4 5
4. Hezkidetzari dagozkion alderdi batzuk ez dira behar bezala baloratzen, adibidez, hizkuntza ez sexistaren erabilera.	1 2 3 4 5
5. Gure gizartean sexismoa desagertu beharko litzateke.	1 2 3 4 5
6. Gaur egun jende gehienak generoen arteko aukera berdintasuna onartzen du, baina soilik teorian.	1 2 3 4 5
7. Erraza da hezkidetzaren ildo horretan lan egitea eskoletan.	1 2 3 4 5
8. Oraindik irakasleek orokorrean kostata onartzen dituzte berdintasunaren inguruko planteamenduak.	1 2 3 4 5
9. Eskolan mutilak eta neskek elkarrekin hezteak ez du berdintasuna bermatzen.	1 2 3 4 5
10. Hezkidetzak ez die neskei bakarrik mesede egiten.	1 2 3 4 5
11. Eremu eta irakasgai guztietan integratu ahal izateko baliabide gehiago beharko lirateke.	1 2 3 4 5
12. Hezkidetza ez da soilik gai jakin batzuk aukeratuz garatzen, baizik eta alderdi gehiago kontuan hartu behar dira.	1 2 3 4 5
13. Mutilak ez dira alde batera uzten hezkidetza eredu honetan.	1 2 3 4 5
14. Hezkidetzak egindako lanak atzemandako egoera sexistak gainditzeko balio izan du.	1 2 3 4 5
15. Irakasleen lan taldeetan hezkidetzaren inguruko eztabaidak gutxitan ematen dira.	1 2 3 4 5

16. Irakaslegoak hezkidetzaren inguruko formakuntzak jaso beharko lituzke.

1 2 3 4 5

- Hezkidetzaren inguruko formakuntzak jaso edo ikastaroak egin ditut: BAI EZ

2. eranskina: elkarrizketa gidua

- Hezkidetzaren garrantzia
- Irakasleen formakuntza beharraren inguruko pertzepzioa:
 - Formakuntza beharraren inguruko adostasun maila altua
 - Etapen arteko desberdintasunak
 - Hezkidetzaren eraginkortasunaren inguruko zalantzak
- Beharrezko formakuntza mota:
 - Edukiaren inguruan
 - Formakuntzaren modalitatearen inguruan
- Ideia propioak zalantzan jartzeko eta jokabide pertsonalak aldatzeko beharra:
 - Sensibilizazio pertsonala eta genero kontzientziazioa
- Hezkidetzak, gatazkak interpretatzeko eta indarkeria prebenitzeko gakoa

3. eranskina: lehen esku-hartzean eztabaida sustatzeko galderak


- Zergatik izan behar dute elefante neskek arrosak eta elefante mutilak grisak? Zergatik jan behar dute lore mingotsak? Politagoak izateko?
- Nola dago Margarita ipuinaren hasieran?
- Esango zenukete Margarita gainerako elefanteen desberdina zela?
- Margaritak loreak jaten zituen baina ez zen arrosa bihurtzen. Triste zegoela uste duzu, benetan arrosa izan nahi zuelako edo ama eta aita haserretzen zirelako?
- Etxean zerbait gaizki egiten ez duzunean, nork ematen dizue errieta? Nork esaten dizu nola egin behar den ondo? Nor haserretzen da?
- Zergatik uste duzu Margaritak hesia uztea erabaki zuela? Bere erabakia ausarta izan dela uste duzu?
- Zergatik hasieran beste elefanteek gaitzespenarekin begiratzen dute eta gero inbidiaz eta azkenean denek hesia utzi eta Margaritarekin bat egiten dute?
- Istorioa horrela amaitzea espero al zenuen? Zer da gehien gustatu zaizuna?




4. eranskina: hirugarren esku-hartzerako argazkiak



5. eranskina: laugarren esku-hartzerako argazkiak



6. eranskina: bosgarren esku-hartzean erabilitako irudiak



7. eranskina: bosgarren esku-hartzean haurrek sortutako marrazkiak





NESKA
ILE LUZEA
GONIA
FUTBOLA
ASARRA



NESKA
ILE MOTZA
SOMERIA
FUTBOLA
AMAIKIA SOLA
INDARTIA



MUTILA
ILE LUZEA
GONIA
AMAIKIA SOLA
INDARTIA



NESKA
FUTBOLA
ILE MOTZA
GONIA
INDARTIA



MUTILA
ILE LUZEA
FUTBOLA/BALLET
ISILA

NESKA
ILE LUZEA
AMAIKIA SOLA
LASAIA



NESKA
FUTBOLA
ILE LUZEA
INDARTIA





